

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

AGINTALDIAREN BALANTZEA 2021-2024

www.ehu.eus

AURKIBIDEA

Hitzaurrea.....	3
Ardatz Estrategikoak.....	5
Prestakuntza	6
Ikerketa eta Ezagutzaren Transferentzia	9
Kultura eta Gizartea	12
Pertsonak	15
Gobernantza eta Baliabideak.....	19
Zeharkako Ardatzak.....	24
Komunikazioa	25
Nazioartekotzea	27
Eraldaketa Digitala	29
Garapen Jasangarrirako Helburuak	30

HITZAURREA

«Unibertsitatea gizartearen erdian, pertsonak unibertsitatearen bihotzean»

Amaitu dugu lau urteko agintaldia. Lau urte oso bizi izan dira. Urte hauetan, martxan jarri ahal izan ditugu gure hauteskunde programan jaso genituen egitasmo gehienak. Eta gainera, egokitu behar izan dugu ezustean sortu diren aurreikusi gabeko egoeretara, pentsaezinak programa landu genuenean.

2021eko urtarrilaren 25ean hasi ginen, pandemia betean. Ikasi genuen belaunaldi berriek, baliabide birtualetara ohituta daudenek, inoiz baino gehiago baloratu zutela presentzialtasunak unibertsitatean eta harreman sozialetan duen garrantzia. Aldiz, gure belaunaldia tresna digitalez betetako unibertso batean murgildu zen, eta lortu genuen irakas-lanari eustea, pandemiaren aurreko ikasturteen pareko maila batean.

Horregatik, uste dut 2021eko gure lorpenik handienetako bat izan zela oreka lortzea online plataformen erabileraren eta presentzialtasuna ahalik eta maila handienera mantentzearen artean.

2022an, Ukrainako gerra piztu zen, ondorio pertsonal lazgarriekin, eta ondorio sozial eta ekonomikoekin, gizartearentzat eta, horrenbestez, unibertsitatearentzat. Energia aurrezteari dagokionez, klima aldaketari aurre egiteko erronka izatetik behar ekonomiko bihurtzera igaro zen. Hartu genituen neurriei esker, % 17 aurreztu dugu elektrizitatearen kontsumoan, eta % 50, gasarenean.

Testuinguru aldakor horretara egokitzeaz gain, lehen bi urteetan gure plan estrategikoaren oinarriak ezartzeari ekin genion, eta hamaika bilera egin genituen, diagnostikoak partekatzeko eta gure etorkizuneko helburuei buruzko adostasunak lortzeko. Entzute



aktiboko lan horri esker, plan espezifikoak onartu ditugu adostasun zabalez, arlo ugaritan: graduondoko eta etengabeko prestakuntzako eskaintza; euskararen erabilera prestakuntzan eta unibertsitateko bizitzan; ikerketa eta transferentzia; ikasleen parte-hartzea; nazioartekotzea; inklusioa; berdintasuna, eta komunikazioa.

Horrekin batera, elkarlanean aritu gara Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin, 2023-2026 Unibertsitate Plan berriaren idazketan. Plan horren bidez, UPV/EHU n eginiko inbertsioa handitu da, plantilla handitzeko eta finantzatzeko aukerak bermatu dira, eraikinak mantentzeko eta birgaitzeko finantzaketa berria eta guztiz beharrezkoa ezarri da, eta, azkenik, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateak Bizkaian eta Donostian izango dituen eraikin berrien finantzaketa bermatu da. Programa kontratuak anbizio handiagokoak dira eta finantzaketa handiagoa dute. Asmo handiagoko unibertsitate plan bat gustatuko litzateke, baina onartzen dugu aurrerapauso handia izan dela aurreko planekin konparatuz gero, eta abiapuntu ona LOSUK proposatzen duen finantzaketa ereduaren bideari ekiteko: BPGaren % 1eko inbertsioa unibertsitate publikoan.

Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetatik lortu dugun inbertsioarekin, gehi kanpoko baliabideekin (urtean 100M€ baino gehiago), aurrekontua % 22 inguru handitzea lortu dugu. Hazkunde horri esker lortutako emaitzek onurak ekarriko dituzte zuzenean bai unibertsitateko kideentzat bai gizarte osoarentzat.

Horrela, aurkezten dugun balantzea onartutako planen eta lortutako baliabideen emaitza da. Ez da zehatz-zehatza, dokumentu honen helburua delako kudeaketa txosten bat baino arinago irakurtzea, baina emaitza nagusiak nabarmentzen ditu, azpimarragarrienak haien berritasunagatik, gizartean duten inpaktuagatik edo unibertsitatean duten eragin kuantitatibo edo kualitatiboagatik.

Espero dut balantze honek argi erakustea zer den UPV/EHU 2025ean, eta zer bide egin duen gure unibertsitateak lau urte hauetan. Bide hori hasi genuen eta amaitu dugu bost ardatz estrategikoen eta zeharkako lau ardatzen gidarekin. Ardatz estrategikoak dira: Prestakuntza; Ikerketa eta Transferentzia; Pertsonak; Kultura eta Gizartea; eta Gobernantza eta Baliabideak. Aldiz, zeharkako ardatzak dira: Komunikazioa, Nazioartekotzea, Eraldaketa Digitala eta Garapen Jasangarrirako Helburuak.

Jakina, lan handia dago egiteko, baina eginiko bideak aukera ematen digu harro amaitzeko gure lana, harro geure ekarpena egiteagatik zerbitzu publikoari. Aldaketa askotara egokitu behar izan dugu, eta erabaki asko hartu, baina uste dut esan dezakegula balantze orokorra oso positiboa dela.

Ondorio gisa, esango nuke 2025ean unibertsitate sendo eta indartsu bat dugula eragile egituratzaile gisa (gizartea eta lurraldea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarea, eta jakintzaren adarrak egituratzen dituen eragile gisa), eta elkarlanean aritu nahi duela diziplinartekotasunetik gizartearen desafioetan.

Gaur arte lortutakoa emaitza kolektibo bat da, eta emaitza horretan, proiektu bakoitzak, datu bakoitzak, izen multzo bat du. Horiek gabe, ezer ez litzateke posible izango. Izen kolektiboak, fakultate, eskola, ikergune, institutu, sail, batzorde, negoziazio mahai, aliantza eta erakunde laguntzaileenak. Eta izen propioak, bere lanpostuan diharduen profesional bakoitzarena, eta ikasgela, liburutegi, tailer eta laborategietan aritzen den ikasle bakoitzarena.

Eskerrik asko guztioi zuen lanagatik eta dedikazioagatik.

Eta ez ditut ahaztu nahi, unibertsitateko kideak ez izan arren, Euskal Herriko Unibertsitatea babesten duten pertsona guztiak. Izen bat nabarmendu nahi nuke hemen: Magdalena Barrenetxea, dohaintzak bideratzeko sortu dugun Unibertsitate-Gizarte gelari izena eman dion emakumea. Magdalenak ondare handi bat utzi zuen unibertsitatearen esku, gaixotasun neurodegeneratiboetan ikertzeko. Argi zuen ikerketa funtsezkoa dela gure osasuna hobetzeko, eta unibertsitate publikoan jarri zuen konfiantza, etekinik handiena ateratzeko inbertsio horri.

Eskerrik asko Magdalenari eta haien konfiantzari esker gure unibertsitatea Euskadin gehien baloratutako erakundea izatea ahalbidetzen duten pertsona guztiei.

Eskertuta esaten dut agur, harro proiektu honen buru izateko izan dudan ohoreagatik, eta onena opa diot talde berriari eta gure unibertsitate publikoaren etorkizunari.

EMAN TA ZABAL ZAZU

Eva Ferreira García
UPV/EHUko errektorea

ARDATZ ESTRATEGIKOAK



PRESTAKUNTZA

**Irudimena behar dugu batez ere zientzietan.
Dena ez da matematika eta dena ez da
logika hutsa, edertasun eta poesia
apur bat ere beharrezkoa da»**

María Tecla Artemisia Montessori, Chiaravalle, 1870-1952

UPV/EHU liderra da prestakuntzan:

- Eskaintza zabala eta erakargarria ezagutzaren arlo guztietan, etengabe eguneratzen ari dena.
- Gure lurraldeko erakundeekin eta erronka sozialekin lotura, eta nazioarteko begirada.
- Hezkuntza berrikuntza eta egiaztatutako kalitatea.

GRADUKO IKASKETAK

Osasunaren eta ongizatearen alde egiten dugu, euskal gizarteari nazioarteko ezagutza berritzaileena emateko, diziplina anitzeko profesional eleanitzak prestatuz, XXI. mendeko gizarte eta ingurumen erronketarako prestakuntzarekin.

2 GRADU BERRI



**Ingeniaritza Biomedikoa /
duala / ingelesez**

**(Bilboko Ingeniaritza
Eskola, Bizkaiko Campusa)**



**Logopedia / duala /
hirueleduna**

**(Psikologia Fakultatea,
Gipuzkoako Campusa)**

3 GRADU BIKOITZEKO ESKAINZA BERRI

- Ingeniaritza Zibila + Arkitektura Teknikoa (Gipuzkoako Ingeniaritza Eskola, Gipuzkoako Campusa).
- Ingeniaritza Mekanikoa + Industria Elektronikaren eta Automatikaren Ingeniaritza (Gasteizko Ingeniaritza Eskola, Arabako Campusa).
- Haur Hezkuntza + Lehen Hezkuntza (Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultate, Gipuzkoako Campusa).

6 2+3 PRESTAKUN- TZAKO IBILBIDE: LH+EHU BIDEAK

- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua.
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioko Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua.
- Mekatronika Industrialeko Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Berrikuntzaren Ingeniaritzako Gradua.
- Web Aplikazioen Garapeneko Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Informatika Ingeniaritzako Gradua.
- Plataforma Anitzeko Aplikazioak Garatzeko Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Informatika Ingeniaritzako Gradua.
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioako Goi Mailako Prestakuntza Zikloa + Informatika Ingeniaritzako Gradua.

GRADUONDOKO IKASKETAK

Eskaintzaren eta harreraren hobekuntza esanguratsua gertatu da, okupazio tasa % 15etik gora igo da eta 2025ean % 75era iritsiko da.

+100 GRADU- ONDOKO ESKAINZA BERRI

- Zientzia Esperimentalen Didaktika Doktoregoa.
- Industriara Bideratutako Adimen Artifiziala eta Ordenagailu bidezko Ingeniaritza Masterra
- 11 Erasmus Mundus master.
- Musika Hezkuntza, Dantza eta Arte Eszenikoak espezialitatea Irakaskuntzako Masterrean.
- Abokatutza eta Prokuradoretza Masterrean euskara talde bat sortu da.
- Bioetika eta Biozuzenbidea unibertsitate arteko onlineko masterra.
- Graduondoko berezko 53 titulazio berri.
- 37 mikrokredentzial 2024/2025erako.

GRADUONDOKO ESTRATEGIA

- Graduondoko II. Plan Estrategikoa abian jarri da: 13 ikastegik graduondoko eskaintza berrantolatu dute, eta 17k konpromiso dokumentu bat sinatu dute plan horretarako.
- Berezko Ikasketen Modelo Berri bat onetsi da.
- Berezko Ikasketen Kudeaketa Eredu berri bat aztertzeke esperientzia pilotu bat abian jarri da.
- Doktorego eredu eguneratu da araudi berri baten bidez.

PRESTAKUNTZA ERAKUNDE LAGUNTAILEETAN

Ikasleek gero eta aukera gehiago dituzte kanpoko erakundeetan hainbat formaturen bidez prestakuntza jasotzeko, gure lurraldeko ingurumen, gizarte eta/edo ekonomia arloko erronkei zuzenean heltzen dieten bitartean:

13.000 praktika egonaldi baino gehiago urtero

- **Kanpoko praktikak:** 13.000 praktika egonaldi baino gehiago urtero.
- Graduako eta masterreko **prestakuntza dualeko** 19 proiektutan parte hartzea (5 proiektu berrialdi honetan). Horietako bi TH Köln unibertsitatearekin graduako nazioarteko lehen titulazio bikoitz dualak dira, Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskolan.
- Gero eta **GRAL, MAL edo tesi** gehiago garatzen dira **erakundeetan**.
- Prestakuntzaren kalitate berme guztiekin, **Ingurune Profesionaletako Prestakuntza Esparruari** eta **EHUduala ereduari** esker, fakultate eta eskolekin batera garatu eta kanpoan egiaztatuta dagoena.

PRESTAKUNTZA BERRITZAILEA ETA KALITATEZKOA i³ EREDUAREKIN

Arlo horretako emaitza nagusiak:

8.000 ikasle baino gehiago hezkuntza berrikuntzarako 124 proiektu berritan

Akreditazio instituzionala osatua 19 ikastegietan

- **8.000 ikasle** baino gehiagok parte hartu dute hezkuntza berrikuntzarako 124 proiektu berritan, kanpoko 123 erakunderekin.
- **300 GRAL eta MALe** erakunde horien **benetako erronkei** heldu diete, besteak beste, Formula-Student, Ocean i3 edo Ikasle-kulturala proiektuetan.
- Hautazko lehen **prestakuntza ibilbidea**, hainbat graduk partekatzen dutena eta hezkuntza berrikuntzarako proiektu batetik datorrena: Formula Student Bizkaia Bilboko Ingeniaritza Eskolan.
- **Lanbide Heziketarekin** batera egindako berrikuntzarako **proiektuak**, hala nola Odontologia Klinikako proiektu aitzindaria.
- Ikerketa, prestakuntza eta aholkularitzarako 3 laborategi iraunkor berri sortu dira **erronketan oinarritutako hezkuntzan, ikaskuntza zerbitzuan** eta prestakuntza dualean.
- **IKDGazTE** birdiseinatu da eta **BAT** (Berdinen arteko Tutoretza) tutoretza programak errekorra bete du **2.500 ikasleren** parte hartzearekin. Programa horrek unibertsitatean sartu berri diren ikasleen integrazio akademikoa, soziala eta pertsonala errazten du.
- **Akreditazio instituzionala** osatu da 19 ikastegietan, eta horietako hirtan lortu da akreditazio hori berritzea; gainera, **berezko ikasketen kalitatearen** jarraipena txertatu da unibertsitatearen kalitate prozesuetan.
- UPV/EHUren lidergoa **ENLIGHTeko baterako lehen graduaren** diseinuan, Uppsala, Groningen eta Comenius Bratislava unibertsitateekin, Incubator Grant baten bidez finantzatuta.





IKERKETA ETA EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA

«Egia ez da aldatzen gehiengoak sinetsi ala ez»

*Hipatia Alexandriakoa, matematikaria
eta filosofoa, 355-415 edo 416*

2025ean, UPV/EHU liderra da zientzian eta transferentzian Euskadin, estatuan lehena *spin-off*-ak sortzen eta bigarrena kanpoko baliabideak hartzen eta dibulgazioan. 400 onenen artean dago, Shanghaiko sailkapenaren arabera. Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sarearen eragile egituratzailea da.

IKERKETA

Ikerketari bultzada handia maila guztietan, bai hastapenekoetan, bai nazioartean eragin handia dutenetan, desberdintasunak murrizteko faktore zuzentzaileak jasota.

Euskadin egikaritutako ERC programaren 19 laguntzetatik 11 UPV/EHU daude

- Euskadin egikaritutako **European Research Council** programaren 19 laguntzetatik 11 UPV/EHU daude. (ERC Grant-ak Horizonte Europa Programako proiekturik entzutetsuenak dira, oso lehiakorak).
- 257 ikertalde daude aitortuta unibertsitatean, 2019an baino % 14 gehiago, eta jakintza arlo guztietako 3.400 ikertzailek baino gehiagok hartzen dute parte horietan.
- Euskadin erakunde liderra gara ikerketan; estatuan hirugarren postuan gaude eta munduko 400 onenen artean, Shanghaiko sailkapenaren arabera, hau da, onenen % 2an gaude.
- Urtean 6,5 M €-tik gorako inbertsioa egiten da ikertzaileen prestakuntzarako.
- Kontratupeko ikertzaileak, doktorego aurrekoak eta doktorego ondokoak, 900 pertsona baino gehiago dira, 2019tik % 20tik gora areagotu dira, zehazki doktorego ondokoak % 60 baino gehiago.
- 2023an 521 doktorego tesi defendatu ziren, % 35 gehiago 4 urtetan, eta horietatik % 43 nazioarteko aipamenarekin.

Shangaiko
sailkapenaren
arabera, munduko
400 unibertsitate
onenen artean

- **Doktorego tesien % 14 baino gehiago euskaraz** egiten dira, eta horietatik **erdiak nazioarteko aipamena dute.**
- Ikerketa deialdietan **genero ikuspegia** txertatu da, 5. GJHari lotutako genero ikuspegiko eta trans errealitateko ikerketa proiektu bat gutxienez erreserbatuta.
- 2023az geroztik, beste proiektu deialdi bat dago, urtean 275.000 €-tik gorako zuzkidura duena, **ikertzaile berrien lidergoa** eta, bereziki, emakumeen lidergoa bultzatzen duena.
- Ikertzaileen prestakuntzari bultzada doktore gutxi dauden arloetan, ikertzaileak kontratatzeko deialdietan plazak erreserbatuta.
- **Ikerketa intentsiborako guneen** aurrekontuari bultzada: HBP, HiTZ, FAAZ eta EHUQuantumCenter zentroa, 2022an sortua.



- **Next Generation funtsak** erakartzeko, kudeatzeko eta justifikatzeko laguntza.
- UPV/EHUn FECYT kalitate zigilua duten aldizkarien kopurua % 25 handitu da azken urteotan, eta 2024an 8 aldizkarik dute zigilu hori.
- Latinoamerikarekin ditugun harremanak sendotu ditugu ikerketaren arloan, urtero deialdi bat eginez Latinoamerikako unibertsitateekin lankidetzan ikerketa proiektuak egiteko.
- Zientzia irekia **bultzatu** dugu eta UPV/EHUK **CoARA** (*Coalition for Advancing Research Assessment*) ekimenarekin bat egitea sustatu dugu, datozen 5 urteetan ikerketaren ebaluazioa aldatzeko konpromisoarekin.

EZAGUTZAREN TRANSFERENTZIA ETA KOMUNIKAZIOA

Lidergoa komunikazio jardueretan eta zientzia irekiko jardueretan. Kanpoko funtsen erakarpena % 70 handitu da. 5 gizarte ikasgela sortu dira.

252 M € ikerketa eta transferentziagatik azken 5 urteetan

54 unibertsitate-
enpresa-gizarte
gela

- 252 M € ikerketa eta transferentziagatik azken 5 urteetan, % 70etik gorako gorakada 2019. urtearekin alderatuta.
- Lehen unibertsitatea Espainian enpresa eratorrien sorkuntzan (58 spin-off azken bost urteetan) eta bigarren unibertsitatea enpresa eta erakundeekin egindako kontratuen ondoriozko diru sarreretan (12,6 M € 2023an).
- Prestakuntzarekin, ikerketarekin eta bikaintasunaren transferentziarekin konprometitutako **hamabost katedra eta 54 unibertsitate-enpresa-gizarte gela**. Horietatik 7 eta 34, hurrenez hurren, azken 4 urteetan sortu dira. Ikasleen konpromiso soziala sustatzen da unibertsitate-gizarte gelen bidez.
- Dibulgazio zientifikoko argitalpenetan **bigarren unibertsitatea Espainian** *The Conversation* argitalpenean, hirugarren postuan erakunde zientifikoak kontuan hartzen baditugu.



- **17.000 parte hartzaile** baino gehiago Zientzia Astean, **9.000 pertsona** baino gehiago Europar Batasunak finantzaturako Ikertzaileen Europako Gauean, eta *First Lego League* ligaren antolaketa Euskadiko STEAM estrategiaren parte gisa.
- **Patenteen urteko ekoizpena bikoiztu da**, eta gaur egun bi euskal patentetik bat UPV/EHUkoa da.



KULTURA ETA GIZARTEA

**«Noiz eta gehiago maite,
orduak eta gehiago daki.
Noiz eta gehiago jakin,
orduak eta gehiago maite»**

*Joxean Artze, idazlea eta musikaria, Usurbil, 1939-2018.
UPV/EHUren Urrezko Domina emateko
ekitaldian egindako hitzaldian*

**Euskal Herriko Unibertsitatea gizartearen
bihotzean, pertsonak unibertsitatearen erdigunean.**

ERAGIN SOZIALA

230.000

LAGUNEK

**hartu dute parte kultura,
kirol eta hedakuntza
akademikoko
jardueretan**

- Zientzia Esperimentalen Didaktika Doktoregoa
- 900 laguntza biltzarrak, sinposioak, mintegiak, jardunaldiak, hitzaldiak eta bestelako jarduerak antolatzeko.
- Elkartasunari eta eragin sozialari bultzada, alojamendu sozial eta solidarioko programak indartuz, udalerriekin eta hirugarren sektoreko erakundeekin adostuta, hala nola Peñascal Kooperatibarekin edo Kuvu Elkartearekin.
- Hitzarmenak kulturaren, kirolaren eta gizarte eta ekonomiaren arloko gizarte erakunde nagusiekin, hala nola Vital Fundazioarekin, Mobility Lab Vitoria-Gasteiz fundazioarekin, Guggenheim Museoarekin, Athletic de Bilbao taldearekin, Tabakalerarekin edo Musikenerekin.
- Esperientzia Gelak: 25 urtetan unibertsitateko 4.500 tituludun baino gehiago Giza Zientzietan. **Aitorpena 2024ko Bilbao Balioen Hiria sariarekin.**
- **Unibertsitate aurreko 22.000 ikasle** hurbiltzen dira urtero UPV/EHU eta bertako prestakuntza eskaintza hobeto ezagutzeko.

ELKARTASUNA. LAGUNTZA BEREZIA PALESTINARI ETA UKRAINARI

Manifestu aitzindaria eta erreferentziazkoa Israelekin harreman instituzionalak gaitzesteko eta ezabatzeko

- Gobernu Kontseiluan manifestu aitzindaria eta erreferentziazkoa onartu da, adostasun oso handiarekin, Israelekin harreman instituzionalak gaitzesteko eta ezabatzeko ekintza zehatzak jasotzen dituen.
- Palestinako poeta baten poesia bat gehitu da Poesiaren pasealekuan.
- Nazioarteko babes egoeran dauden errefuxiatuei arreta emateko programa indartu da, Palestinari eta Ukrainari arreta berezia eskainita. Irakasle palestinar errefuxiatu bat kontratatu da.
- 5 tona osasun laguntza bidali dira Valentziara GOIDIaren biktimentzat.

EUSKARA ETA EUSKAL KULTURA

Unibertsitateko kideen artean euskara indartu eta euskal kultura bultzatu da, gizarte inguruneko kultura eragileekin lankidetzazabalaren bitartez.

5 BIKAIN ziurtagiri berri

- Unibertsitateko esparru guztietan **euskararen erabilera sustatu da** jarduera berrien bidez, hala nola Korrika kulturala, Euskararen as-
tea, Tandem eta Loraldia; programa berrien bidez, hala nola Sormen
Ola eta Euskara eta kultura; eta lankidetzazabalaren bidez, hala nola
Lazarraga Kultur Elkartea edo Euskararen Etxea erakundeekin.
- Hiru campusetako errektoreordetzek, Bilboko Hezkuntza Fakultateak
eta Gipuzkoako Ekonomia eta Enpresa Fakultateak **BIKAIN ziurta-
giriak eskuratu dituzte**. Bilboko Ingeniaritza Eskolaren, Farmazia
Fakultatearen eta Arkitektura Eskolaren eskaerak abian dira.



- UPV/EHUren eta euskal kultura sarearen arteko lankidetzazabalaren bitartez, **Ondu EHUkultura proiektuaren sorrerarekin**. Lanartearekin eta Loraldiarekin lankidetzazabalaren bitartez, 14 GRAL, 1 MAL eta 3 praktika egin dira lehenengo edizioan.

Argitalpen Zerbitzuak argitalpen kopuru errekorra

- **UPV/EHUren kultur agenda** sortu da, komunitateari kultur eskaintza-
ren berri modu bateratuan emateko.
- **Euskal kulturaren eta euskararen arloko katedra berriak**, hala nola
Joxe Azurmendi, Jose Migel Barandiaran eta Gabriel Aresti katedrak
edo Henrike Knörr sariak Arabako Foru Aldundiarekin, euskararen
erabilerari buruzko ikerlanak sustatzeko.
- Mikel Laboa Katedrak **IGOA proiektua jarri du abian** Hezkuntza,
Filosofia eta Antropologia Fakultatean, irakaslegaien ohartze eta
ahalduntze soziolinguistikorako, eta 6 irakaslek eta lehen mailako 150
ikaslek hartu dute parte.
- Argitalpen Zerbitzuak **argitalpen kopuru errekorra** argitaratu du
2024an (263 argitalpen, ISBNrekin), eta horietatik 71 euskaraz izan
direz, azken zifra horrek ezarritako helburuak gainditu ditu.
- Ikasketak euskaraz egiteko UPV/EHU n matrikulatzen den **Iparraldeko
ikasleen** kopurua nabarmen handitu da.
- **Nazioarteko ikasleen** kopurua handitu da euskara ikastaroetan eta
euskal kultur jardueretan.

KULTURA EKINTZAILEA

8.000tik gora lagunek hartu dute parte ekintzailtza programetan

- Unibertsitateko kideen artetik **8.000tik gora lagunek hartu dute
parte ekintzailtza** bultzatzeko programetan.
- **49 start-up** teknologiko sortu dira.
- Hiru campusetako enpresa mintegietatik sortutako **15 start-up** bai-
no gehiagok ekintzailtza lotutako kanpoko hainbat sari eskuratu
dituzte.



PERTSONAK

«Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak, burruka hortan iraungo duten zuhaitz ardaska gazteak»

*Xabier Lete Bergaretxe, idazlea, poeta eta abeslaria,
Oartzun 1944-2010, «Izarren hautsa»*

Gure unibertsitateko kideen ongizatea zaintzen dugu eta egiten duen lana aitortzen dugu.

- **Gure langileek egindako lan akademiko, ikertzaile eta sozialaren garrantzia nabarmentzen duten 200 ekitaldi eta aintzatespen baino gehiago (25 urte, erretiroak, Docentiaz, berdintasuna, euskara, GJHak...)**
- **Campus osasuntsua eta jasangarria programa abian jarri da ongizate fisikoa eta psikologikoa sustatzeko.**

IRAKASLE-IKERTZAILEAK (IRI)

2025ean, irakasle-ikertzaileen plantilla 2021ean baino askoz egonkorragoa da. Aurrekaririk gabeko lanpostu kopurua eskaini da kategoria guztietan, baita promozioakoak ere.

Lorpen kolektiboa, Eusko Jaurlaritzarekin adostutako plantilla politika hobetzeari esker, lege eta aurrekontu bermearekin, eta akordio handia duena sindikatuekin eta unibertsitateko kideekin.


Lau urte hauetan:

**Laguntzaile
doktoreen 1.000
lanpostu berri**

- **Promozioko lanpostuak boskoiztu dira (200) eta egonkortze lanpostuak bikoiztu (500).**
- **Laguntzaile doktoreen 1.000 lanpostu berri.**
- **Lanpostu egonkorra lortzeko zerrendak ia ezabatu egin dira eta lanpostuz igotzeko itxaronaldia bi urtera murriztu da, bereziki babes-tuz irakasle klinikoak.**

Estatuko gutxieneko soldata handiena doktorego aurreko eta doktorego ondoko ikertzaileentzat

- Gizarte eragileekin akordioa lortu ondoren, **estatuko soldata handiena** dugu doktorego aurreko eta doktorego ondoko ikertzaileentzat.
- Lan erreformatik eta zientziaren legearen aldaketatik kanpoko finantzaketaren kargura egindako ikertzaileen **kontratuen egokitzapena arrakastatsua** izan da. **% 37 handitu da** azken 4 urteetan kanpoko finantzaketarekin kontratatutako ikertzaileen kopurua.
- Banakako Jarduera Plan Berria – **Jardun**, LOSUra egokitua, unibertsitateko kideen artean adostasun handia duena.
- **IRIen % 85** (lanaldi osokoa eta 60 urtetik beherakoa) **elebiduna** da (gaztelania/euskara) eta **% 10 hirueleduna** (gaztelania/ingelese/euskara).
- **Poltsak deitzeko** prozesua **digitalizatu** da.
- **Erretiroa hartzeko neurriak** erakargarriak eta adostutakoak dira.
- Irakasle laguntzaile doktoreen sarbidea ikerketako **seiurtekoetan**.
- IRIen jardunbidea hasieratik garatzen da, **ABIATU programa** abian jarrita.



TEKNIKARIAK ETA KUDEAKETAKO ETA ADMINISTRAZIO ETA ZERBITZUETAKO LANGILEAK (TEKAZEL)

Behin-behinekotasuna murriztu da % 8tik behera eta langileen lan baldintzak hobetu dira.



Funtzionarioek edo lan kontratudun langile iraunkorrek 1.193 lanpostu bete dituzte

Kontziliazio gida

- TEKAZELEko langileen **behin-behinekotasuna** murriztu egin da % **8tik behera**, 2019, 2020, 2021 eta 2022ko LEPetatik eratorritako hautaketa prozesuak ebatzi ondoren. Horren ondorioz, **1.193 lanpostu funtzionarioek edo lan kontratudun langile iraunkorrek bete dituzte** (LZko lanpostuen % 70).
- 2023ko eta 2024ko LEPak onartu dira, LZko 80 lanpostu funtzionarioekin edo lan kontratudun langile iraunkorrek bete zezakeen.
- **Erretiroa hartu aurreko baldintzak hobetzeko** akordioa.
- **A-leader** emakumeen lidergorako programa sortu da **TEKAZELEko langileentzat**.
- 2023an 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatuta zuen TEKAZELEko langileen % 50ak.
- 2022an **kontziliazio gida** egin zen eta kontziliazio neurriak hobetzeko akordio berria lortu zen sindikatu guztiekin.
- **Kontziliazioaren aldeko Alares Fundazioaren estatu mailako saria.**

IKASLEAK

2025ean UPV/EHU erreferentziazkoa da unibertsitate mailako hezkuntza inklusiboaren eta aukera berdintasunaren esparruan. Ikasleen ongizate fisikoan eta emozionalean eragiten duten programen katalogo zabala du. Gure ikasleek beren kultur programak antolatzen dituzte eta jarduera gehiagotan parte hartzen dute.

4.500 ikasle baino gehiago Inklusio Planarekin lotutako hainbat programatan artatu dira

Entzute eta Erantzute Sarea sortu da


- Zaurgarritasun egoeran dauden 4.500 ikasle baino gehiago artatu dira UPV/EHUko **Inklusio Planarekin** lotutako hainbat programatan.
- UPV/EHUko ikastegietako **Entzute eta Erantzute Sarea** sortu da. Dagoeneko 26 ikastegi eta atal eta 200 laguntzaile baino gehiago ditu.
- Hezkuntza premia bereziak dituzten UPV/EHUko ikasleei **aukera berdintasuna** bermatzeko arautegia berme gehiagorekin.
- UPV/EHUren 2024-2027 aldirako **IV. Inklusio Plana** onartu da.



Unikoak abian jarri da eta 1.900 ikasle baino gehiagok hartu dute parte

Nazioarteko ikasleen kopurua handitu da euskara ikastaroetan

- 20 urte baino gehiagoren ondoren, EAeko **espetxeetan dauden pertsonen ikasketa hitzarmena** sinatu da Eusko Jaurlaritzarekin.
- Euskadin **Suizidioa Prebenitzeko Estrategiari** atxiki zaio, hiru campusetan trebatutako irakasleekin.
- Abian jarri da **Unikoak**, beren kultur jarduerak antolatu dituzten eta horietan parte hartu duten **1.900 ikasle baino gehiagorekin**.
- UPV/EHUK **First Lego League – Euskadi** txapelketetako bat antolatu du lehenengo aldiz Arabako campusean (900 parte hartzaile baino gehiago, 34 talde; 300 gazte baino gehiago).



- **EHUkirola** programako parte hartzea nabarmen handitu da urtez urte, eta 2022-2023 ikasturtean 15.331 lagunek hartu zuten parte 3 campusetan.
- Nazioarteko ikasleen kopurua handitu da **euskara ikastaroetan**.
- **Aitortzak**, besteak beste, espediente onenei, goi errendimenduko kirolariei eta erronka sozialei lotutako GRALak edo MALak dituztenei.



GOBERNANTZA ETA BALIABIDEAK

«Nola-halako emakume batek nola-halako gizon batek bezain azkar gora egiten duenean iritsiko da berdintasuna»

*Estelle Rosemary Ramey, fisiologoa,
Michigan, AEB, 1917-2006*

GOBERNANTZA

2025ean gobernantza hurbilagoa, berdinzaleagoa eta gardenagoa dugu.

Parte hartze eta adostasun handiarekin, unibertsitateko kideen arteko bizikidetzarako oinarrizko printzipioak finkatu dira, lehenengo etika kodea eta bizikidetzari buruzko lehenengo araudia onetsita.

Ikasleen II Partaidetza Plana


Kontsulta publikorako prozedurak sortu dira

- **Hitzarmenen leihatila bakarra eta EISBA sortu da** (gora jotzeko errekurtsoen leihatila bakarra eta araudia bateratzeko eta koordinatzeko).
- Estatutuak erreformatu dira, **IRI doktore ez iraunkorren ordezkari-tza hobetzeko** eta ikasleen parte hartzea errazteko, eta klaustroaren araudia erreformatu da, parte hartzea bultzatzeko.
- **Ikasleen II. Partaidetza Plana** onetsi da, unibertsitateko jarduera guztietan ikasleen rol protagonista indartzeko.
- **Kontsulta publikorako**, sinplifikazio administratiborako eta arau berrien laburpen exekutiboetarako prozedurak sortu dira.
- Osakidetzarekin egindako ituna berritu da eta batzorde mistoak akordioak lortu ditu medikuntzako irakasle lotuak eta plaza berrikoak sortzea indartuz.

AITORTUTAKO LIDERGOA BERDINTASUN PROGRAMETAN

2024-2028 aldirako IV. Berdintasun Plana, 2,5 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin

- **Izena aldatzeko protokoloa** onartu da eta UniDibertsitate Eguna urtero egiten da 2021. urteaz geroztik.
- Europako Unisafe proiektuaren testuinguruan aitortpena egin da **genero indarkerien aurkako protokoloa ezartzeagatik**.
- Berdintasunaren arloko Zuzendaritza sendotu egin da **aurrekontu bikoitza** baino handiagoarekin eta teknikari bat gehiagorekin 2022az geroztik.
- 2024-2028 aldirako **IV. Berdintasun Plana**, 2,5 milioi eurotik gorako aurrekontuarekin eta gai hauei buruzko konpromiso argiekin: langileen kopurua handitzea, telelana hobetzea eta genero aldagaia txertatzea katedretarako sarbidean IRIen kasuan, 2028an emakumeak % 40ra iristeko.



ERREKURTSOAK

2025ean, UPV/EHUK Unibertsitate Sistemaren Plan berri bat du (2023-2026), aurrekontua nabarmen handitzen duena eta finantzaketa arrunta bermatzen duena. Gainera, partida berri bat du unibertsitateko azpiegiturak berritzeko eta hobetzeko. Berezko baliabide gehiago lortu dira.

Unibertsitatearen aurrekontua % 21,41 handitu da

- Unibertsitatearen **aurrekontua % 21,41 handitu da** agintaldiaren hasieratik: 2021ean 437,37 M € eta 2024an 531,03 M €.
- **5,9 M € gehiago urtean** unibertsitateko azpiegiturak berritzeko eta hobetzeko.
- **Urtero 100 M €-tik gora erakartzen dira kanpoko baliabideetatik**.
- Lehenengo erakunde publikoa da Next Generation funtsak erakartzen eta Euskadiko bigarrena.

Urtero 100 M €-tik gora erakartzen dira kanpoko baliabideetatik

- EHUlagun Magdalena Barrenetxea ikasgela sortu da gaixotasun neurodegeneratiboak ikertzeko, ondarea dohaintzan emateari esker.



AZPIEGITURAK

Campus atseginagoak eta jasangarriagoak: azpiegiturak modernizatzeko, energia efizientzia hobetzeko eta gune funtzionalagoak eta jasangarriagoak sortzeko jarduerak

Mobility Lab
Campus proiektua

Arabako campusa

- Ingeniaritza Eskolako espazio hobeak **Mobility Lab Campus proiektua** garatzeko (MICINNen finantzaketarekin).
- **i3 Lab Campus** (Ideien laborategia) izeneko gunea sortu da, Arabako campusean IKD i³ eredu indartzeko.




Geotermia instalatu da Letren, eta Hezkuntza eta Kirol fakultateetan

- VGI Eren azpiegiturak hobetu dira «**Offshore energia eolikia energia berriztagarrien eta hidrogeno berdearen saiakuntza eta garapen energetikorako**» proiektua egiteko (CIEMAT-en finantzaketarekin).
- **Geotermia instalatu da** Letren, eta Hezkuntza eta Kirol Fakultateetan (egoitza), campuseko 13 eraikinetatik 11 lotuko dituen kondentsazio eraztun bat eraikitzen hasteko (tenperatura baxuko District Heating) (EEEren eta Next Generation funtsen finantzaketarekin).
- Lascaray ikerguneko estalkia birgaitu da.
- Farmazia Fakultateko kanpoko arotzeriak ordeztu dira.
- Hezkuntza eta Kirol Fakultateko kiroldegian **plaka fotovoltaikoak** instalatu dira.
- Elurreta eraikineko informatika zerbitzuetako lokaletan aerotermia instalatu da.
- Okupazio handiko ibilgailuentzako aparkaleku bat prestatu da Elurreta ikasgelategiaren alboan, TAOaren inpaktua minimizatzeko.

Itsasgunea proiektua inauguratu da

Bizkaiko campusa

- **Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearen eraikin berria eraikitzen hasi dira** Basurtuko ospitalearen ondoan, 66,54 milioi euroko aurrekontuarekin.




- **Itsasgunea** proiektua inauguratu da, itsasoari lotutako irakaskuntza-aren, ikerketaren eta transferentziaren berrikuntzarako gunea.
- María Goyri eraikinean **EHU Quantum Center** garatzeko proiektua.
- Lehendik dauden azpiegiturak hobetu dira, eraikin hauen irisgarritasuna eta energia efizientzia bultzatuz: Areto Nagusia, Biblioteka Nagusia.
- Bilboko Ingeniaritza Eskolako transformazio zentroa berritu da.
- Leioa/Erandio guneko galdara gelaren kontrol sistema berritzeko lanak hasi dira.
- **Plaka fotovoltaikoak** instalatu dira Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko, Hezkuntza Fakultateko, Galdara Gelako eta Bibliotekako teilatuetan.

- Leioa/Erendio guneko ur horniduraren sarea berritu da.
- Gizarte eta Komunikazio Zientzien eta Arte Ederren Fakultateko komunak berritu dira.
- Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Sarriko) estalki nagusiaren birgaitze integrala egin da.
- Miguel de Unamuno Ikastetxe Nagusiko estalkiak eta terrazak birgaitu dira.
- Hainbat argi instalazio led motako argietara aldatu dira Ikasgelategietan, Martina Casiano eraikinean eta Leioa/Erendio guneko aparkalekuko eraikinean.
- Bilboko Ingeniaritza Eskolako B eraikineko eta Ekonomia eta Enpresa Fakultateko (Elkano) estalkien birgaitze integrala egin da.
- Leioa/Erendio guneko Errektoregoko eta ikasgelategietako plataformak eraisteko obren proiektua idatzi da.

Medikuntzako eta erizaintzako irakasgunerako eraikin berria

Gipuzkoako campusa

- **Medikuntzako eta erizaintzako irakasgunerako eraikin berri bat** gehitu da Donostian, 24 milioi euroko aurrekontuarekin.
- 2025ean **ikasleen egoitza berria** eraikitzen hasteko aurretiazko lanak egin dira.




- HEFA II-ko **estalkia** eta barne-patioko **fatxada** konpondu dira.
- Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko **terraza** konpondu da.
- Kimika Fakultateko **galdara gela eta geotermia sistema** berritu dira.
- **Plaka fotovoltaikoak** instalatu dira Zuzenbide Fakultatearen eta Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolaren Donostiako eta Eibarko egoitzetan.
- Zuzenbide Fakultateko **sistema elektrikoaren** azterketa egin da (Baimendutako Kontrol Erakundea).
- Zuzenbide Fakultateko **ebakuazio eskaileren proiektua** eguneratu da.
- Carlos Santamaria Zentroaren **estalkia konpontzeko proiektu teknikoaren** eta obra zuzendaritzaren lizitazioa.

ZEHARKAKO ARDATZAK

Zeharkako ardatz hauek funtsezkoak dira ardatz estrategikoen apustuak arrakastatsuak izan daitezen.

Komunikazioa, Nazioartekotzea, Digitalizazioa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak aurreko ardatz estrategikoak zeharkatzen dituzten ardatzak dira, eta horiek bultzatzea funtsezkoa izan da lortutako emaitzak eskuratzeko.



KOMUNIKAZIOA

«Gizakiak gara; ez gara robotak.
Eta aurrez aurreko kontaktua
testu mezu bat idatzi
eta gero hura ahaztearen
guztiz desberdina da».

*Noam Chomsky (filosofoa, hizkuntzalari
eta aktibista estatubatuarra, 1928-)*

2025ean abian daukagu 2023-2026 aldirako
Komunikazio Plana, kanpo eta barne komunikazioa
bultzatzen duena, 6.500 bilera baino gehiagorekin
eta EHUko albisteak % 20 areagotuta.

Batez beste 6 ekitaldi eta topaketa egunean
errektorearen eta haren taldearen eta kanpoko
eragileen artean eta, bereziki, unibertsitateko
kideen artean, proposamen berriak eztabaidatzeko
eta sortzeko.

BARNE KOMUNIKAZIOA

Gobernu onaren prozeduren inplementazioa

- **Urtean aldiari behingo bilerak** egiten dituzte errektoreak eta bere taldeak ikastegietako, sailetako eta ikerguneetako zuzendaritzekin, taldeetako ikertzaile nagusiekin, ikasleekin, irakasle gazteekin eta TEKAZELekin, besteak beste.
- Ikastegiekin harremana areagotu da: komunikazio arduradun bat izendatu da zuzendaritza eta dekanotza talde bakoitzean.
- Parte hartzea handitu da gobernu onaren prozeduren bidez: **kontsulta publikoa** (24 arau eta plan proposamen, eta horietatik 104 ekarpen individual eta/edo kolektibo jaso dira), **sinplifikazio administratiboa** (34 iradokizun jaso dira) eta **laburpen exekutiboak** (12).

KANPO KOMUNIKAZIOA

**Prentsa oharrak
% 25 areagotu dira**

**Web orria garatu
eta berritu da**

- Kanpo komunikazioko ekintzak **areagotu** dira lau urte hauetan: % 12 prentsaurrekoetan, % **25 prentsa oharretan** eta % 2 prentsan izandako eraginean.
- **Ikerketako komunikazioa sendotu da:** Komunikazio Bulegoak egindako 5 albistetik 1 unibertsitatean egiten diren ikerketei buruzkoa da.
- **Web orria garatu eta berritu da** (4.680.000 erabiltzaile + % 19,8 erabiltzaile berriak); 51.550.000 orrialde ikusita; 12.200.000 saio).
- **Eragina sare sozialetan:** 216.577 jarraitzaile lortu dira Facebook, X, LinkedIn eta Instagramen; 5.880 eduki argitaratu dira; 27.893.658 inprimatze eta 647.047 interakzio.





NAZIOARTEKOTZEA

«Bidaiak hezkuntzaren zati dira gaztaroan eta esperientziaren zati zahartzaroan».

Sir Francis Bacon. Filosofoa, Londres 1561-1626

2025ean UPV/EHUren nazioarteko proiektzioa eta ikusgarritasuna handitu egin da tamainan eta lurralde irismenean, nazioarteko aliantza estrategikoak indartuz.

Nazioartekotze Plan bat dugu, atzerriko ikasleak erakartzeko eta nazioarteko titulazioen eskaintza zabalagoa izateko tresna gehiago eta hobekak dituen.

ALIANTZAK

ENLIGHT aliantza bikaintzat jotzen du Europako Batzordeak

- **ENLIGHT Aliantza bikaintzat jotzen du Europako Batzordeak** eta 14 milioi eurotik gorako finantzaketa jasotzen du; eta UPV/EHUk bere gain hartzen du *Thematic Networks* izeneko lankidetzaproiektuen deialdia kudeatzeko ardura.
- UPV/EHU Euskampus-Bordeaux Mugaz **Gaindiko Campusa** gizarte eragina duen goi mailako hezkuntzan, ikerketan eta berrikuntzan mugaz gaindiko lankidetzaredua sustatzeko gune gisa finkatu da.
- Graduondoko Sare Latinoamerikarra handitu egin da beste 5 unibertsitatearekin hitzarmenak sinatuta.
- **Euroeskualdearekiko** lankidetzarendotu egin da Mugaz Gaindiko Lankidetzare Institutuaren (ICT) proiektua abian jarrita.

MUGIKORTASUNA ETA HITZARMENAK

2.000 ikaslek baino gehiagok egiten dute mugikortasuna nazioartera

Hitzarmenak izen handiko unibertsitateekin kontinente guztietan

- Urtero, **2.000 ikaslek baino gehiagok** egiten dute **mugikortasuna nazioartera**, modalitate guztietan: luzeak, laburrak eta BIPak.
- Hitzarmenak izen handiko unibertsitateekin **kontinente guztietan** (Toronto Metropolitan University, Tokyo Institute of Technology, University of Cambridge...).
- Afrikako kontinentea eta Indonesia barne, lurralde horietako unibertsitateekin ditugun lehenengo hitzarmenekin nazioarteko harremanetan.
- **Welcome Center** sortu da, nazioarteko ikasleei eta langileei zerbitzu integrala eskaintzeko.
- **Lehenengo Basque Language and Culture Summer School** jarri da abian, nazioarteko ikasleei unibertsitatea ezagutarazteko.





ERALDAKETA DIGITALA

«Let's integrate the big data with the thick data»

Tricia Wang, (ethnographer and co-founder of PL Data)

Zeharkako elementu gisa funtsezkoa da prozesuak hobetzeko, eta ezinbestekoa izan da pandemian eta ondorengo urteetan. Lankidetzaren eta urruneko lana erraztea ahalbidetu du, laneko bilera askotan joan-etorri fisikoak nabarmen murriztuz.

Sinadura digitalaren implementazioa, lan gehienetarako behar den denbora nabarmen murriztuz

Ikasleen posta elektronikoko postontzien edukiera handitzea

Elkarlanerako lan-tresnen implementazioa

- Sinadura digitala oro har ezartzeak eta hori hainbat aplikazio informatikorekin konektatzeak aukera eman du kudeaketa lan gehienetarako behar den denbora nabarmen murrizteko.
- Giza baliabideak kudeatzeko, ikerketa kudeatzeko eta kudeaketa ekonomikorako aplikazioak eguneratzeko hainbat proiektu jarri dira abian, eta laster egongo dira martxan. Eta hainbat pilotu egin dira GAUR ordeztuko duen kudeaketa akademikorako tresna berri bat diseinatzeko eta ezartzeko erabiliko den teknologia baliozkotzeko.
- Ikasleen posta elektronikoko postontzien edukiera handitzea (1.000 aldiz handitu da) eta elkarlanerako tresnak ezartzea aurrerapen handia izan da UPV/EHUko langile guztien eguneroko lana errazteko.
- Beste 13 unibertsitate publikorekin lankidetzan aritzeko proiektu baten esparruan egoitza elektronikoa berria abian jartzeak aukera emango du elkarlanean hobetzeko eta kudeaketa lan ohikoenetarako prozedura administratiboak bateratzeko eta partekatzeke.
- Gobernu Kontseiluaren Ekonomia Batzordean aurkeztu da **UPV/EHUko Kontabilitate Analitikoaren eredia**, gure baliabideen kudeaketa erraztuko duen tresna.
- **Fakturen eta kontratuen sinadura elektronikoa** lehen horretarako behar zen denboraren erdian egiten da eta jarduketarako bakar batekin. Wifi sare berria, sarbide puntu gehiagorekin (estaldura handiagoa) eta konexio abiadura handiagoarekin.
- **Nazioarteko mugikortasuna kudeatzeko** tresna digitala (**Erasmus Without Paper- EWP**) eta Mobility Online plataformaren kontratazioa.
- Unibertsitate **liderra Online Learning Agreements (OLA)** direlakoen kudeaketan, garapen propioko Erasmus Without Paper (EWP) sistemen bidez.



«Zientziatik ekintzara: ezagutza zientifikoa eta soluzioak baliatu behar ditugu garapen jasangarria eta erresilientea sustatzeko»

Nazioarteko Batzorde Zientifikoa (ISC)

Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH) lortzeko 2030eko epemuga hurbiltzen ari den heinean, munduak errealitate gordin bati egin behar dio aurre: helburu handinahi horietarako aurrerapena larriki desbideratuta dago, jomuga asko geldirik daudelako edo atzera egiten ari direlako krisien ondorioz, hala nola pandemien, gatazken eta ezegonkortasun ekonomikoaren ondorioz. Erronka horien erdian, ezagutza zientifikoa aprobetxatzea inoiz baino garrantzitsuagoa bihurtu da, diziplinartekoa eta diziplinaz gaidikoa integratuz.

ISCK deskribatutako testuinguru horretan, GJHak eta gure 2030 agenda unibertsitateko jarduerekin uztartu dira, erreferentziazko esparru propio batean.

2025ean, EHUagenda 2030 gaintu dugu (aitzindaria estatuan), irismena handituz helburu kopuruari eta hedadurari dagokienez.

Irakaskuntzan, ikerketan eta transferentzian, eta kudeaketan UPV/EHUk lurraldearen ingurumen, gizarte eta ekonomia jasangarritasunarekin duen konpromisoa hedatzen duten askotariko programak ditugu.

Jasangarritasuna ikasle guztiengana hurbildu da

Azken lau urteetan, UPV/EHUk:

- **GJHekin zerikusia duten GRALak, MALak eta doktorego tesiak** bultzatzeko eta monitorizatzeko mekanismoak txertatu ditu.
- **Hezkuntza berrikuntzarako proiektu guztiak** jorratzen dituzten GJHekin lotzen ditu, eta, **Campus Bizia Laben**, zehazki jasangarritasun proiektuetara bideratutako deialdian, **urtero 30 proiektu** inguru jarri dira abian, tartean **500 pertsona** sartuz.
- **Jasangarritasuna ikasle guztiengana hurbildu du**, i3 eredu hainbat estrategiaren bidez, eta ikasle bakoitzak bere GRALean GJHei buruzko gogoeta egin dezan bultzatu du, graduako prestakuntza amaitzean.

Energiaren kontsumoan urtean 2,5 M€ aurrezteko lortu du UPV/EHUK

- **Gure ikertaldeek % 76,7** Garapen Jasangarrirako Helburuekin lerrokatuta dago, eta osasuna eta ongizatea eta kalitatezko hezkuntza GJHak dira ikerketan gehien lantzen direnak.
- UPV/EHUK urtean 2,5 M € murriztu du energia kontsumoa. Abian jarri diren ekintzei esker, nabarmen murriztu dira kontsumoen zifrak azken 5 urteotan: **argindarra (-%17), gas naturala (-% 50,00) eta gasolioa (-% 35,11)**.
- Konpromiso handiagoa du **bakearen, justiziaren eta erakunde sendoen** aldeko 16. GJHarekin, **gatazkan dauden eremuei eta errefuxiatuei laguntza** espezifiko emateko ekintzekin.



- **Unibertsitateko kideen artean 3.400 lagunetik gora** inplikatu ditu ohituren aldatetan *The Planet App* aplikazioarekin eta **1.200 tona CO2** baliokide **baino gehiago** murriztea lortu du.
- Nazio mailan, hiri eraldaketa jasangarriarekin konprometituta dagoen unibertsitate bakarra da, Gasteizen garatzen den **UnicitiES 2030** programaren bitartez.

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea